

Diru-zuzkidura:

Diru-zuzkidura, 5.000 €, honela banatuta:

- proiektua asmatu, diseinatu eta prestatzea: 2.000 € (proiektu osatua entregatzerakoan finkatutako zenbatekoa)
- proiektua aurrera eramatea: 2.000 € (materialak, pertsonala, dietak eta abar barne direla) (Fundazioak zuzenean egiten ditu ordainketak, eta gastu guztiak behar bezala justifikatu behar dira)
- proiektuaren sustapena: 1.000 € (Fundazioak zuzenean egiten ditu ordainketak, eta gastu guztiak behar bezala justifikatu behar dira)

Epeak:

- Zirriborroaren aurkezpena (gehienez 15 folio): 2008ko otsailaren 15a.
- Epaimahaiaren epaia: 2008ko otsailaren 29a. 2008ko martxoaren 1ean argitara emango da epaia eta zuzenean jakinaraziko zaio aukeratutako proiektuaren egileari, harremanetan jartzeko hark adierazitako moduan.

Proiektua aukeratu ondoren, hauek izango dira epeak:

- Proiektu osatua aurkeztea: 2008ko apirilaren 30a.
- Prestaketa-aldia: 2008ko uztaila, premien arabera, museoaren instalazioetan.
- Exekuzioa: 2008ko abuztuaren lehenengo astea.
- Ebaluazioa eta memoria: 2008ko abuztuaren 31.

Proiektuaren ezaugarriak:

Proiektuak puntu hauek jaso beharko ditu gutxienez:

- Helburuak
- Marko teorikoa
- Metodologia
- Edukiak
- Ebaluazio-sistema
- Komunikazio-plana
- Aurrekontua

Proiektua Chillida-Leku Museoaren espazioaren barruan garatuko da. Dena de, Fundazioak beste esparru batera egokitzea erabaki ahal izango du. Fundazioak aldaketak egin ahal izango ditu jatorrizko proiektuan, dagokion hezkuntza-jarduerara egokitzeko.

Proiektua prestatu eta aurrera eramateko, beka jasotzen duen pertsonak Chillida-Leku Museoaren instalazioak eta baliabideak erabiliko ditu eta bertako langileekin koordinatuta lan egingo du.

Hautagaiak:

Arte Eder, Artearen Historia, Pedagogia edo antzeko ezagutza-arloetako lizentziatuak edo bigarren zikloko ikasleak eta aipatutako ezagutza-arlo horietan esperientzia dutela ziurtatu duten pertsonak. Hautagaiak bakarka edo taldean aurkez daitezke.

Hautaketarako irizpideak:

- Ikasketa-espedientea
- Curriculum Vitae
- Proiektua: Fundazioaren helburuetara egokitzea eta proposamen originala izatea baloratuko da, besteren artean.

Epaimahaia:

- Chillida-Leku Museoko Zuzendaritza
- Hezkuntza Arloko pertsonal teknikoa

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Egingo den proiektuaren zirriborroa
- Ikasketa-espedientea
- Curriculum Vitae
- NAN fotokopia
- Eskabide-orria

|